



## Patxi Zeberio Baines Torneoko finaleko lehen partida galdu du

**ELDUAIN** ▶ Uterga eta Urrutiaren aurka 30-40 galdu  
zuen Agirrezabalarekin batera, atzo Labriten ▶ 4



Urrutia pilotari ematen, atzo Baines Torneoko lehen finalean, Labriten. Eskuinean, Zeberio II.a. M. OLITE

ASIER IMAZ



## Gaur bukatuko da informatikaren topaketa

**TOLOSA** ▶ Gipuzkoa Encounter informatika  
topaketa erraldoiak 300 lagun baino  
gehiago bildu ditu asteburuan Usabalen ▶ 5

**TOLOSA** ▶

### Goiza lasai igaro zen atzoko azokan

Produktu berri ugari  
ikusi ahal izan ziren ▶ 4

**AMAIA AGIRRE** ▶ BERTSOLARIA

### «Lehen konfiantza handiagoa nuen neure buruan»

Billabonatarra iraganaz, orainaz  
eta etorkizunaz mintzatu da ▶ 6-7



I. GARCIA

**LEITZA** ▶

### Barriola eta Bengoetxea aurrera, banakakoan

Eulate eta Xala  
garaitu dituzte ▶ 4

## ASTEKO IRUDIA ▶



## Arrautzaren Festa «arrakastatsua» jende ugari erakarri du Tolosara Aste Santuan

**Erredakzioa** ▶ Aste Santuko jai egunetan, hau da, hilaren 5etik 8ra Zerkausia jatetxe handi batean bilakatu zuten, beste behin, Tolosako Udalak Tolosa Gourmeten baitan antolaturiko ekitaldiarekin, Arrautzaren Festarekin. Kasu honetan, Tolosako larunbateroko azokan «pisu garrantzitsua izaten duen arrautza omentzea» izan dute helburu, eta hori dela eta, menu bereziak prestatu dituzte, beti ere, arrautza osagai izan dutelarik. Tolosako Udala «oso gustura» geratu da festak izan duen harrerare-

kin; «Tolosa Gourmet ekimena indartu ahal izan dugu, jai egunetan herrian geratu direnei eskaintza eman eta kanpokoak erakartzeko balio izan du eta, gainera, ostalaritza osoak hartu du parte», adierazi du Jokin Bildarratz alkateak. Denera, 1.400 lagun baino gehiago bildu zituen festak, gehienak gipuzkoarrak. Tolosako jatetxe-tako sukaldarien menuez gain, beste hainbat ekitaldi ere antolatu zituzten, tartean, tortila erraldoia. Goxua Azoka ere izan zen, 8.000 bisitarirekin. HITZA / NOTICIAS DE GIPUZKOA

hitza

Harpidedunen  
txokoa

Egin zaitez harpidedun! ▶

HITZAREN HARPIDEDUN  
TXARTELAREKIN %5\*-eko  
BEHERAPENA izango duzu  
zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko  
eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik  
eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

ILUENAKIN  
**honekin**  
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44  
Santa Mari plaza, 1 behea

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI  
KINOLAK**

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**Avalon**  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**MUGAR**  
Nafarroa etorb., 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

IRAKURLEEN TXOKOA ▶

Tolosaldeko azken kanpai-jolea

Tolosaldeko kanpai guztiek orduak, laurdenak, t' erdiak eta laurden gutxiak automatikoki ematen dituzte. Belauntzakoez orduz kanpo ere hitz egiten dute.

Ziur aski Tolosaldeko azken kanpai-jolea den Joxe Fermin

Garmendiak doinu eta erritmo desberdinekin herritarrei mezeta dei egiten die sokei tiraka kanpaien mingainak astinduz.

Bere aita Bixente zenak erakutsi zion Joxe Fermi Balauntzako San Juan Bataiatzailearen elizako kanpandorrerako bidea. Herritarrei mezarako deia kanpaiei hitz eginaraziz nola egin behar zen azaldu zion. Bere izeba Petra ere aritu zen.

Joxe Fermin poliki-poliki, goxo-goxo hasten da eta pixkanaka pixkanaka erritmoa bizituz eta doinua ozenduz jotzen da. Halako egonezin bat sortzen zaizu entzutean. Banoa! Banoa!

Tokatzen denean Joxe Ferminek kanpandorrera igo eta agonia jotzen du. Haseran orduak jotzen ari dela dirudi baina kolpe baten eta ondorengoaren arteko tartea luzeaz goa da. Ordulariari begiratu

eta ez dela tokatzen konturatzaren zara. Arnasa moztzen zaizu. Agonia da. Belauntzar bat hil da.

Urte mordsoska daramatza kanpaiak jotzen muxu truk. Eta kurioa izateaz gain, galtzar dagoen ohitura bat da eta aipamen bat merezi duela pentsatzen dut, bai ohitura honek bai eta oraindik kanpaiak eskuz jotzen dituen Joxe Ferminek ere.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO ▶

Azken urteetan etxebizitza asko eraiki dituzte Leitzan. Babes ofizialekorik ez, ordea. Zer iritzi duzu?

Nire ustez orokorrean etxebizitzaren prezioak jeitsi beharko lituzkete, eta horrela etxebizitza normalak, hau da, babes ofizialekoak ez direnak eta babes ofizialekoak eraiki ordez, prezio logiko bat izango luketen etxebizitzak egingo lituzkete soilik. Etxebizitzak behar dira, baina herrietako baratzak eta belatsiak ere beharrezkoak dira eta azken finean, oraingo planteamendu urbanistikoen atzean ez dago herritarren beharra betetzeko nahia, konstruktoreen diru gosea baizik.

Beharrezkoak dira babes ofizialekoak, bestela nola ordaindu? Beste pertsona batekin bizitzaren jartzerako, garai hauetan 28-30 urte izan behar dituzu, eta lanpostu on bat, edo finko bat (existitzen bada) ez da 22 urterekin lortzen. Erreztasunak jarri beharreen, oztopoak jartzen zaizkigu. Leitzan ea noiz egingen duten pertsona normalendako etxeren bat.

Herriak aurrera egin nahi badu, beharrezkoa da gazteak bertan geratzea! Ezinezkoa da ikasketak bukatu berri dituen 25-30 urteko gazte batentzat 40-50 milioiko zulo batean sartzea, horregatik beharrezkoak dira. Ez bakarrik Leitzan, Areson, Lekunberrin, Sakanako herrietan... Aupa Leitz! Aupa Sakana!

ALAITZ MENDIZABAL ▶ TOLOSALDEA TOUR BULEGOKO LANGILEA

«Aste Santuan egin diren jaialdiengatik jende ugari etorri da Tolosara»

Asier Imaz ▶ Aste Santuan kanpora joatea ohitura bilatu da. Kanpotik eskualdera etorri direnak ere izan dira. Bai batzuek eta bai besteak turistak dira. Alaitz Mendizabal (Tolosa, 1977) Tolosaldea Tour turismo bulegoko langilea da.

Turista asko ibili al da Aste Santuan gurean?

Azken urteetan baino jende gehiago mugitu da eskualdean. Hau batez ere Arrautzaren Festagatik izan da. Jende asko erakarri du. Publizitatea ere Espainia mailan egin zen eta honek eragina izan du. Guk postu bat jarri genuen bertan eta bulegoa ere zabalik izan dugu egun guztietan, hor ikusi dugu Madrildik eta Kataluniatik etorri direla gehienak, baina baita Bizkaiatik ere. Esan bezala, batez ere, Arrautzaren Festagatik izan da, tortilaren kontuak adibidez turista asko erakarri ditu. Larunbatean ere Tolosa Goxua zegoen eta honek ere gerturatu du jendea, goiz pasa bezala asko hurbildu dira. Bi ekitaldi hauek data hauetan oso erantzun ona izan dute.

Zein motatako turista gerturatu da tolosaldera?

Gehien bat ezkonberri gazteak haurrekin dira. Hala ere, gazteak eta helduak ere gerturatu dira. Hona gerturatu direnak nekazalturismoak nahiago ditu orohar. 3 edo 4 egun igarotzen dituzte edo Donostian daudela aprobetxatuz hona hurbiltzen dira. Mendiarekin lotuta etortzen direnak ere badaude, batik bat Aralar inguruak ezagutzera joaten direnak. Tolosako Alde Zaharrak ere arrakasta handia izaten du, jendeari asko gustatzen zaioarik. Gehienek gainera aldeaz aurretik zer ikusi nahi duten edo



ASIER IMAZ

guti gorabehera ezagutza batekin etortzen dira. Kalitatezko turismo bat eskaintzen saiatzen gara eta hobekuntzak azken urteetan nabariak izan dira. Igoera nabarmena jaso du ni hemen nagoen azken hiru urteetan. Eskaintza bereziak ere aurkezten ditugu nekazalturismoan eta abar. Azkenik egin diren jaiak ere lehen esan bezala jendea ekartzen dute; Txuletaren Festa horren adibide argia izan zen.

Tolosara gerturatu al dira eskualdera gerturatu diren gehienak?

Antolatzen diren jaiak eta Alde Zaharra izateak asko erakartzen du jendea eta asko gustatzen zaie arkitektura aldetik eraikuntzak zein ongi kontserbatuak dauden ikustea. Beste herriek ez dute alde zahar hori. Txokolatearen museoa ere hor dago, ikastolako haurrak ekartzen dituena beskeen artean. Egiten diren merkatuak ere kontuan hartu behar dira, beti egoten baita zer ikusia. Udalak azken urteetan bultzada handia eman dio turismoari, asko sartu dela iruditzen zait. Azkenik Donostia ondoan izatea ere lagungarri zaigu, ez da etsai bezala ikusi behar, bertatik barrualdera joaten diren gehienek Tolosa aukeratzen baitute.

Udari begira zer eskaintza dituzue?

Oraindik ez dugu ezer zehazturik, baina ari gara gauzak prestatzen. Hala eta guztiz ere, informazio puntuak irekitzen ari gara. Berastegin orain dela gutxi egin genuen bezala. Beste puntu batzuetan ere jarriko ditugu. Horrela bertan eskualdeko informazioa aurki dezake gerturatu denak.

ESKAITZA


«Kalitatezko turismoa eskaintzen saiatzen gara eta lan asko eta ongi egin da azken urteetan arlo horretan»

UDARA

«Informazio guneak jartzen ari gara eskualdeko puntu ezberdinetan, Berastegi da adibidea»

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Aste Santuko jai egunetan oporretara joateko zein leku aukeratu duzu?



ELDUAIN ▶ ERREMONTA

# Zeberio II.ak ezin izan du irabazi finaleko joaneko norgehiagoka

Txapela eskuratzeko, datorren astean, itzuliko partida irabazi beharko dute eta aurkariak 30 tantoren azpitik utzi

ESTI EZEIZA

Baines Torneoko finala atzo hasi zen Labriten. Zeberio II.a Agirrezabala Uterga-Urrutiaren aurka lehiatu ziren, eta azken hauek nagusitu ziren. Partida hasierako bigarren bikotea zen faborito baina lehendabiziko zatian 9-1 hasi ziren garaitzen Elduaingo eta Matxinbentakoa. Partida aurrera joan ahala aurkariak jokoan sartzen berotzen hasi ziren, Elduaingoari eta bere bikoteari aurrea hartuz.

Partida bikaina egin zuten erremonteko lau jokalariek eta ikuskizun polita eskaini zuten.



Patxi Zeberio finalurreko partidaren une batean. HITZA

Ordubete inguru iraun zuen norgehiagokak eta erritmo bizia, azkarra izan zuen. Hala ere, Urrutiak sakez min handia egin zien Zeberio-Agirrezabala bikoteari eta honek azken emaitza baldintzatu zuen.

Txapela

Atzoko partida pilotaleku motzekoa izan zen eta datorren larunbateko frontoi luzean jokatuko dute. Izan ere, hori da Baines torneoko berezitasun nagusia, kanporaketak bi partidatan erabakitzen direla, eta partida bakoitza pilotaleku mota batean jokatzeko dutela. Hala, itzuliko partidaren hau da, Galarretan jokatuko denean Zeberio eta Agirrezabalak txapela eskuratu ahal izateko, hau irabazi egin beharko dute. Gainera, garaipena lortzeaz gain, aurkariak 30 tantoren azpitik utzi beharko dituzte. Beraz, nahiko zaila daukate txapela irabazteko. Erremontisten esanetan, txapela erabakitzeo hainbat gako izango dira datorren astekoan: alde batetik Urrutiaren sarea, eta bestetik, Zeberioaren bizitasuna eta erritmoa.

AZOKA ▶

## Goiz lasaia izan zen atzokoa Tolosan

Produktu berri ugari ikus zitezkeen Zerkausian nahiz Berdura plazan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia izan zen Tolosan. Eguraldia, nahiz eta iluna izan, ez zuen euririk egin, eta horrek zertxobait lagundu zuen. Hala ere, salmenten erritmoa ez zen urteko onena izan.

Eskaintza ordea, urteko onenetarikoan artean kokatu dezakegu. Barazki zerrenda oso zabala ikusi ahal zen, gainera berritasun askorekin. Horren adibide ditugu: baba eta patata berria. Perretxiko zerrenda polita ere ikusi ahal izan zen: esaterako, 50 kilo ziza 40 eurotan saldu zituzten. Honez gain, ohikoak diren gazta, ogia edota produktu ekologikoak ere topatu zitezkeen atzoko azokan.

Berdura plazan ere produktu berri dezente izan ziren. Apaingarriko postuetan, aurtengo lehenengo hortentsiak, lobeliak, gineako alegriak eta armeniak ikusi zitezkeen.

ATZOKO AZOKA ▶

| Berdura plaza | merk. | gares. |
|---------------|-------|--------|
| Begonia       | 1,20  | -      |
| Alegria       | 1,20  | -      |

Bertako produktuek

|        |       |       |
|--------|-------|-------|
| Ziza   | 40,00 | -     |
| Porrua | 1,00  | 10,00 |
| Lekak  | 2,50  | 3,50  |

Produktu ekologikoak

|            |      |      |
|------------|------|------|
| Sagarra    | 2,00 | 3,00 |
| Intxaurrea | 4,00 | 6,00 |
| Tipula     | 1,75 | 2,00 |

ALEGIA ▶ PILOTA



## Lau bikote dira jada, 7e pasan

E. Ezeiza ▶ 7e pasa txapelketan ondorengo bikoteak sailkatu ziren atzo finalerdietarako: Iriarte-Zubeldia, Murua anaiak, Gari-Beñat eta Artola-Galarreta. Hurrengo norgehiagokak datorren larunbatean jokatuko dituzte 15:30ean. E. EZEIZA

LEITZA ▶ PILOTA

## Bengoetxea eta Barriola final zortzirenetan dira

E. EZEIZA

Oinatz Bengoetxea eta Abel Barriola buruz buruko txapelketako final zortzirenetarako sailkatu dira. Lehendabizikoak herenegun Martinez de Eulate izan zuen aurkari, eta 22-4 irabazi zuen Azkoitian jokatuako norgehiagokan. Garaipen honen ondoren hurrengo hitzordua Leizaren aurka izango du.

Erraz gailendu zen Bengoetxea hereneguneko partidaren, izan ere, gaizki jokatu zuen Martinez de Eulatek. Honen

arrazoietako bat, prestatzeko denbora gutxi izatea izan liteke, duela gutxi amaitu baitute binakako txapelketa.

Abel Barriolak berriz Xala izan zuen aurkari atzo. Partida ederra, baina azkarra ikusi ahal izan zen Zarautzen. Hasieran leitzarra nagusitu zen, markagailuan 10-1ekin, ondoren Xala partidari buelta ematen saiatu zen, baina ez zuen lortu. Oso ongi jokatu zuen leitzarrek eta 22-11 nagusitu zen. Hurrengo Peñagarikanoren aurka jokatu beharko du.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

INFORMATIKA ▶

# Gaur Gipuzkoa Encounterren azken eguna izango da

«300 ordenagailu inguru» instalatu dituzte Usabal  
kiroldegian hiru egun iraun duen topaketako partaideek



Kantu lehiaketa eta dantza lehiaketa burutu zituzten atzokoan Gipuzkoa Encounterren. ASIER IMAZ

ASIER IMAZ

Gipuzkoa Encounter topaketako bigarren eguna izan zen atzokoa. Hasierako aurreikuspen guztiak gainditu ditu ordenagailu zaleen jaiak. «Guztira 300 ordenagailu inguru» jarri dituzte Tolosako Usabal Kiroldegian. Gaur azken eguna izango da eta orain arteko joku eta lehiaketen sarituei garaikurrak emango dizkiete ofizialki 17:00etan. Hiru egun eta bi gau iraun dituen topaketak 19:00etan izango du amaiera ekitaldia. Horrela emango diote agurra Tolosan burututako Gipuzkoa Encounterri. Or-

denagailu bitxi eta landuak gustuko dituenak, informatika munduko artistak ikusi nahi dituenak jolasean, kantuan, dantzan edota ikastaro ezberdinak eskaintzen, aukera badu oraindik ere Tolosako Usabal kiroldegian.

Tolosako Encounterra antolatutuenek jarraipena Barakaldoko BECen izango dute, «hau motorrak berotzea da datorriguna kontuan hartzen badugu. Lehen aldia izateko oso gustura gaude eta lasai auztean gabiltza 30 antolatzaileok. Euskal Encounterrean 3.000 edo 4.000 partaide izango dira eta estuago ibiliko gara Bara-

kaldon. Hala eta guztiz ere honen indar berritzeko balio» izan diela aitortzen dute zaletan honen inguruan hainbat jende elkartu dituzten antolatzaleek.

iragarki laburrak ▶

LANA

**Gidariak.** Erakunde publikoetarako. 943 44 88 66.

**Harreragileak.** Udaletxeetarako.

Deitu: 943 44 88 66.

**Garbiketa.** Mantenua, gidariak

langileak, sukaldaritza

langileak... behar dira lanpostu

finkoak betetzeko. 943 29 82 32.

**Suhiltzaileak.** Basozainak,

Ertzaintza, udaltzainak. Erakunde

publikoetarako hainbat deialdi.

Deitu: 943 32 66 63.

**Hezkuntza.** Eusko Jaurilaritza.

Berehalako deialdia. 1.172 lanpostu

gorputz-hezkuntza, haur-hezkuntza, ingelesa, euskara, musika, ALE, PT eta aholkularitza. Informa zaitez.

Deitu: 943 32 66 63.

**Tabernaria.** Tabernaria behar da.

615 78 90 06.

**Zerbitzaria.** Amasako Tabernan

zerbitzaria behar dugu. Deitu

telefono honetara: 943 69 12 10.

**Sukaldaria.** Villabonan sukaldaria

behar da. 943 69 19 33.

**SALGAI**

**Trikitixa.** Trikitixa berria saltzen da.

Deitu: 669 67 36 49.

INKESTA ▶ Zerk bildu zaitu Gipuzkoa Encounterrean?

SEBAS KINTANILA  
LAZKAO

«Denak lagunak gara atletik sartzean»



«Informatikaren inguruko bilera handi honek erakarri nau. Generazio ezberdinak elkartzen dituen mundu berri hau gauza handia da, sarearen abiadura bezala».

J. ANTONIO CAMPO  
IRUN

«Jolasean eta gauzak jeisten ibiltzen gara»



«Lagunekin eta ezezagunekin elkartzeko aitzaki bikaina da, eskurtsio moduko bat. Euskal Encounterrean ere joaten gara eta hona ere gerturatu gara oso gustura».

GUILLERMO GUSI  
BRASIL

«3 ordu besterik ez ditut lo egin gaur»



«Gasteizen bizi naiz eta gustu berdineko jendarekin elkartzeaz gain elkar ezagutzak trukatzeko aukera polita da. Artxibo eta jokuen inguruko jakintza trukutzen dut».

MERCEDES MENDEZ  
BUENOS AIRES

«Gaur etorri naiz eta asko gustatu zait»



«Ordenagailuak gustatzen zaizkigun jendearen topaketa da. Nik jolastu eta pelikula eta serie interesgarriak lortzea dut helburu. Nire mutil lagunarekin etorri naiz».

ENEKO MUÑOZ  
GASTEIZ

«Web orrialdeari publizitatea egitera»



«Batez ere nire web orriari publizitate piska bat emateko etorri naiz. Bi enpresen akordioa lotu dugu eta aukera ona da. Horretaz gain jendea ezagutzera ere etorri gara Tolosara».

UNAI MUÑOZ  
VILLABONA

«Lehiaketetan parte hartzea etorri naiz»



«Ni jokuak, pelikula eta seriak jeisteaz gain, lehiaketetan parte hartzea ere etorri naiz. Lagun zaharrakin elkartzeko eta berriak egiteko aukera bikaina direla uste dut horrelako topaketak».

**MH**  
Makina Erremediararen Institutua  
Instituto de Maquina Herramientas

**HEZIKETA ZIKLO INDUSTRIALAK**

**BERRIKUNTZAK 2007/08 ikasturtean:**

**Goi-Mailako Ziklo ELEANITZAK:**  
euskara/gaztelania/ingelesa

**PROIEKTUETAN** oinarritutako irakaskuntza

**15 urteko esperientzia**

**Erdi-Maila A/D ereduak**

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea erabideen instalazioa eta mantentimendu elektromekanikoa

**Goi-Maila A/D ereduak**

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantentimendua

**... informa zaitez! Ate irekiak:**

**Apirilak 21 eta ekainak 2 goizeko 11:30ean**

IMH, Azkue Auzoa, 1 - ELGOIBAR - Gipuzkoa - Tel.: 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es

AMAIA AGIRRE ▶ BERTSOLARIA

# «Lehen konfiantza handiagoa nuen neure buruan; lotsagabeagoa nintzen»

Bertsoa du ogibide, zaletasun eta zimendu; berdin aritzen da kamera aurrean zein atzean. Oholtzara igotzeak beldurra ematen dio, baina beldurrik gabe mintzo da iraganaz, orainaz eta etorkizunaz

NEKANE GONZALEZ (Berria)

Andoainen bertan jarri dugu hitzordua; horixe baitu egun bizitoki. Dotore-dotore agertu zaigu, «argazkiak atera behar dizkidazue eta!». Ez da hitz aspertutan galdu. Di-da erantzun die galderei, luzamendutan ibili gabe: «Zertarako kontatuko dizkizut direnak eta ez direnak, gero mozten ibili behar baduzul». Oronen gainetik, umorea. Bertsolaria, *Hitzetik Hortzera* saioko erredaktorea eta sortu berri den Hamaika Bertute taldeko kidea da, besteak beste. Amaia Agirre (Villabona, 1977) errimatik errimarako jauzian aritu da gurekin. Eta den bezalakoa agertu zaigu: natural-naturala.

## Amaia Agirre batzu-batzuk ba omen daude gure herrian...

Bai. Batzuk ezagunak eta beste batzuk ez hainbeste. Nik ezagutzen ditut beste hiru Amaia Agirre. Behin, Asteasuko Udalean, bertso eskolei zegokien dirua niri sartu beharrean, bertan lanean aritu zen beste Amaia Agirre baten kontu korrontean sartu ez zuten, ba! Eta nik hura ezagutu, gainera!

## Itzuli al zizun dirua?

Bai, beharko!

## Alatriste Kapitainaren Lope Balboa kidea ere Amaya Aguirre delako batekin ezkondu zen.

Nirekin ez, e? Diru pixka bat eduki izan banu eta beste garai batekoa izan banintz... beharbada bai! Oraingoan, nire zaldunaren zain nago ni.

## Istorio bitxia Alatristerena. Zein da zure istorioa, historia bilakaturik?

Tolosako ospitalean jaio nintzen, baina Villabonakoa naiz. Hiru anai-arreba gara; ni erdiakoa. Etxean diotenez, ez naiz ardi beltza izan, baina gainerakoenak ez bezalako zaletasunak izan omen ditut. Futboleak aritua eta palan ere saio batzuk egindakoa naiz. Orain, alfertuta nabil zeharo. Etxekoek diotenaren arabera, ume mugitua izan naiz; eta argazkiei erreparatu gero, beti jaten edo muturra zikin dudala agertzen naiz. Haserre ere sumatzen zait, maiz, argazkietan. Egia da egoskor samarra nintzela; orain ere pix-



ka bat bai, baina neure burua kontrolatzen ikasi dut. 23 urtera arte Villabonan bizi izan nintzen. Gero, hiru urte eman nituen Tolosan, eta handik, Andoainera etorri nintzen. Han bizi naiz orain, nahiz eta lotara baino ez naizen etxera joaten.

## Ikasle ona al zinen?

Notei begira ikasle ona; baina irakasleei begira, seguru asko, ez nintzen ikasle ona izango. Bihurri samarra izan naiz. Nor zirikatatu pentsatzen igarotzen nuen denbora.

## Nolatan erabaki zenuen euskal filologia ikastea?

Uste dut ez nuela erabaki. Gure aitak Villabonako lehen eskualtegia antolatu zuen garajean. Ofizioz bankuko langilea zen, baina etxean beti ikusi izan dut hizkuntzarekiko kezka hori. Nik zazpi bat urte izango nituen, eta egunero-egunero jaisten nintzen garajera. Han biltzen ziren Nekane Peñagari-kano eta beste batzuk, eta gehienak euskal filologia ikasten ari ziren. Horregatik, horixe egitea erabaki nuen; ez zitzaidan burutik beste ezer ere pasatu. Orain 18 urte izango banitu, aldiz, ez dut uste euskal filologia ikasiko nukeenik. Agian, kazetaritza ikasketak egingo nituen... edo mekanikari izatekoak! Ez dakit, ez dakit...

## Baina bertsoaren aldeko apustua egin zenuen.

Ez dakit apustua izan ote zen; nahi gabe etorri zitzaidala uste dut. Hamalau urte nituela, astean ordubate ere ez nuen izaten libre. Amak ere erotu egingo nintzela esaten zidan; ikasketak zirela lehenengo gauza. Gaur ere ume asko ikusten ditut ni neu orduan nembilen bezala, eta ez zait gauza txarra iruditzen: gero bakoitzak bere bidea hartzen baitu, batzuetan nahita eta beste batzuetan nahi gabe. Nire kasuan, hemezortzi urtera arte futboleak ibili nintzen. Ordurako bertsoan hasia nintzen, eta giro horrek gehiago erakartzen ninduen. Hala ezagutu nituen garai hartan asko estimatzen nituen eta eredu nituen bertsolariak. Herrietara joaten nintzen, jendea ezagutzen nuen... Ez naiz kontzientea, baina horrek erakarri ninduela uste dut. Hasi nintzean, hamahiru edo hamalau

urte izango nituela esango nuke.

#### Zertan aldatu zara ordutik?

Orduan, axolagabeagoa nintzen. Gauzak gaizki aterarri, beti aurpegi ona jartzen nuen. Eta hurrengoan hobeto aterako zela pentsatzen nuen. Gaur egun, aldiz, ez. Lehen askoz ere ausartagoa nintzen. Seguru asko, konfiantza handiagoa izango nuen neure buruan, eta «gaur ez bada, bihar» pentsatzen nuen; lotsagabeagoa nintzen. Jende aurreko horrek ez zidan batere beldurrik ematen; gaur egun, errespetu handiagoa ematen dit. Gezurra dirudien arren, oraindik ere beldurrez joaten naiz kantatzera, erreparoa ematen dit. Batzuek diote horretara ohituta egon beharko genukeela, baina iruditzen zait inoiz ez naizela ohituko. Lasaiago edo urduriago egon zaitezke, baina kezka beti darabilzula hor, jira eta buelta.

#### Azken Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketetan poliki aritu zara bertsoan. Zein da egin nahiko zenueken hurrengo urratsa?

Bizkaikoa pasa denez, azken aldirian Gipuzkoako Txapelketa izan dut buruan. Gai hori entzuten dudana bakoitzean, barruak buelta ematen dit, memento ez baitut horri buruzko ezer jakin nahi. Asko sufritzen dut txapelketetan, eta gainera, oraindik oso presente daukat Euskal Herrikoa. Pozteko arrazoiak gehiago daukat nahigabetzekoak baino, zalantzarik ez dut. Baina neure buruari jarrিতako presioa dela eta gaizki pasatu nuen, bereziki, txapelketaren aurretik. Inoiz baino lore eta aupada gehiago jaso nituen, baina kanpotik dena ilusioa izanagatik, nik inoiz ez bezala torturatu nuen neure burua: berez ez zegoen zulo bat eraiki, eta han sartu nintzen. Gipuzkoako Txapelketari begira, ez nago itsututa. Helbururen bat jarriko diot neure buruari, baina besterik ez. Duela lau urte finala garesti bazegoen, orain garestiago dagoela iruditzen zait. Gazteak gogor datoz, eta nire jirakoek ere Euskal Herrikoan zer egiteko gai diren erakutsi dute. Hori bai, parte hartzeko izena ematen badut, pixka bat prestatuta joan nahiko nuke; nahiz eta horrek ez duen esan nahi gauzak ondo aterako zaizkidanik.

#### Egindakoaren damurik bai?

Askotan esaldi batekin zigortzen dut neure burua: «Zerbait nahi duenak lan egin behar du». Etxean beti entzun izan dut saiatzeko, saialdi guztiek ematen dutela eta fruitua. Hori sinetsi nahi dut, baina batzuetan iruditzen zait gutxi prestatzen eta saiatzen naizela. Damua baino gehiago pena izan-

#### BERTSOLARITZA

«Ez dakit apustua izan ote zen; bertsolaritza nahi gabe etorri zizaidala esango nuke»

go da, agian. Eta horregatik, askotan madarikatzen dut neure burua.

#### Bertsolaria, 'Hitzetik Hortzera' saloko erredaktorea, bertsu eskoletako irakaslea. Ez al dira errima gehitxo?

Bai. Garai batean sokak hasiera eta amaiera zeukan. Orain, aldiz, soka korapilatzen ari da. Nik, egia esan, ez ditut korapiloak askatu nahi; gustura bainabil! Baina jakin badakit bertsotan maila ona eman duten guztiek bertsoan izan dutela burua jarrita. Nik ere zerbait egin nahi badut horretan zentratu beharko dut.

#### Zer iritzi duzu Bizkaiko Txapelketako txapelidun berriaz?

Txapela jantzi eta egun gutxira, elkarrizketa batean garbi esan zuen beste zazpiek baino hobeto egin beharko zuela Txapela janzteko. Finalean bazekien zertara zihoan, baita asmatu ere! Orain, plaza dezente izango ditut, eta erakutsi beharko du ez zela bi ordu eta erdiko zorte kontua izan. Xabi gaitasun handiko bertsolaria dela esango nuke, eta norabait iristea badu amets, gogoia eta indarra jarriz gero, iritsi nahi duen horretatik gertu ibiliko dela iruditzen zait.

#### ERRIMATUZ ▶

**Arratzaindik.** Handik jaisten naiz askotan oraindik.

**Futbolaren itzala.** Itzala izaten segi dezala.

**Bertsoaren kitzika.** Askotan nahi nuke errepika.

**Zer duzu amets?** Inork asmatu ezetz?

**Emakumea vs gizona.** Emakumea vs gizona.

**Txapela buruan...** Kapitain jeneral, orduan!

**Hitzetik Hortzera.** Bertan atera edo ez atera.

**Villabona, Villabona.** Hangoa zen nire amona.

**Xalbador.** Nik ere izan nahi dut nor.

**Euskal prentsa.** Zer irakurri, zer gozatu, zer pentsa.

**Gabonetako giroa.** Kontsumismoaren banpiroa.

**Saddam Husseinen heriotza.** Azkarra eta hotza.

**Politikaria izango bazina...** Nahi ez dudalako ezin imajina.

**Hamaika Bertute.** Hamaika arrautza, hamaika amets, hamaika buruhauste.

#### TXAPELKETAK

«Asko sufriten dut txapelketetan, eta Gipuzkoako Txapelketa entzutean, barruak buelta ematen dit»

#### Bizkaian, Iturriaga eta Elortzarekin batera, hirugarren hanka izango dela uste duzu?

Euskal Herrikoan ere utzi zuen bere arrastoa. Jendeari gustatzen zaio bere kantatzeko modu ausarta eta kinesikoa. Ez nuke esango hirugarren hanka izango denik: beste hanka bat gehiago izango da, esateko asko daukan beste ahots bat.

#### Eta bertsolaritzak egun duen aparraldiaz zer iritzi duzu?

Euskal Herriko Txapelketan, Bertsozale Elkarteak lan handia egin zuen, eta indar handia jarri zuen jendearengana iristen. Horrek erantzuna jaso zuen. Diotenez, inoiz baino jende gazte gehiago da entzule. Orain, aretoak bete egiten dira. Dena den, ez zait iruditzen 91ko aparraldiaren parekoa denik. Logikoa da, normala da iruditzen zait oraingo hau. Ordukoa ez zen berez bertsolaritzak mugiz zezakeen bolumenaren ispilua. Oraingoan, aldiz, bai.

#### Etxabe analentz eta M-N ezten taldearentzat hitzak egina zara. Zer moduz moldatu zara?

Ondo! Aspaldian ez dut musika taldeentzat hitzik idatzi. Deitzen didatenean, ilusioz hartzen ditut deiak, azken batean erronka txikiak baitira. Musika eman, eta gainera hitzak idatzi behar izan nituen. Horrelako lan gutxi egin ditut; beste bertsolari batzuek askoz ere gehiago egiten dituzte, eta abilagoak dira, jakina! Finean, hitzekin jolasteko beste modu bat da, eta gustukoa dut.

#### Euskal filologian lizentziaduna zaitugu. Zer aditz erregimen dauka, zure ustez, gaur egungo egoera politikoak?

Aditz trinkoa duenik ez nuke esango, behintzat! Batzuentzako baldintza askokoa, eta beste batzuentzako hipotetikoa. Ondorio asko atera arren, azkenean puntuak jartzera iristen ez garen esaldi batean korapilatuta gabiltzala iruditzen zait, aditza ere falta duen esaldian geldi. Batzuetan, alde batek gehiegi eta beste batek gutxiegi jartzen duela eta gauzak elkarririk aurpegiaritzen aritzeko joera dugu.

#### Eta etorkizuna nola deklinatuko zenuke?

Beti esan izan dut banu, balego eta balitz alferrikako hiru hitz direla, eta hemen lan asko dagoela egiteko. Halere, bi idi ba-



#### EGOERA POLITIKOA

«Batzuetan alde batek gehiegi eta beste batek gutxiegi jartzen du; gauzak elkarririk aurpegiaritzen dizkiogu»

#### Zer ezaugarri ditu elkarrizketaren hasieran alpatutako horiek ez bezalako den Amaia Agirre honek?

Oso pertsona arrunta naiz; normala ez, baina arrunta bai. Gainerakoek esan beharko lukete zerk egiten nauen berezi, baldin eta ezerk berezi egiten banau. Ez naiz saiatzen ez naitzen hura azaltzen; eta askok egiten dute hori. Baina egia da nire gogo aldartea noria bat bezalako dela: goian nagoen oso goian nago, eta behean nagoen oso behean. Erdibiderik ez dut izaten, eta uste dut lehenago banuela. Hori nire esku dagoela argi dago, baina pena handia ematen dit. Agian, zurekin daukadan elkarrizketa honen ordez, neure buruarekin izan beharko nuke elkarrizketa sakon bat.

#### Noria horretan ez al zara zorabiatzen?

Ni ez. Ingurukoak erotzen dira, ez baitakite goian ala behean ote nagoen! Gainera, tamalez, goian baino gehiago geratzen da behean. Goian, neure burua gustatzen zait: badakit neure buruarekin eta neure buruari barre egiten! Behean nagoen, berriz, maite nautenengandik urrun egiten ahalegintzen naiz, bai baitakit ez naizela berretako ni.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Odol emailen hileroko odol ateratzea egingo dute bihar, 18:00etan, Kultur Etxean. **Tolosa.** Gipuzkoako Merkataritza elkarteak antolatuta, *Desarrollo de la motivacion y autoestima* dendariei zuzenduriko ikastaroa bihartik, Kultur Etxean.

**Tolosa.** Udaberri dantzari taldeak ostegunean, hilaren 19an, ekingo die Bordondantzako entseguei. Usabal kiroldegian izango da, 20:30ean.

**Tolosa.** Aurten Kazkabarra Taldearen 25. urteurrena da, hori dela eta, urte hauetan taldearekin harremana izan dutenentzat afaria antolatu dute apirilaren 21erako. Hala, txartelak eskuragai dira Ikatza, Orbela eta Mescalen.

**Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pentsionista elkarteak Saloura oporraldia antolatu du maiatzaren 27tik ekainaren 19era. Pentsio osoa hiru izarreko hotelean 381 euro (ez bazkideek 387). Informazioa egoiztan.

**Zizurkil.** Sozialista Abertzaleak-ek herri batzarrera deitzen du biharko. Atxulondo kultur etxean izango da, 20:30ean.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *El velo pintado* filma (drama) emango dute Leidor aretoan: gaur 19:30ean, eta bihar, 20:30etik aurrera.

**Tolosa.** *Bambi 2* haurrentzako filma ikusgai gaur, Leidorren, 17:00etan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.  
**Tolosa.** Olarrega, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

**Bihar**  
**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Hitzak* hegana (errepikapena).

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Gailurretik lautadara

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶** Bi irakurle hauek oso leku desberdinak bisitatu dituzte Aste Santuan: Pirinioak batek eta Segovia besteak

**SEGOVIAKO SIESTATXOA ▶**

**Juan Luis Artola Azpiroz (Leitza).**

Juan Luis Artola Azpiroz leitzaarra Espainia aldean ibili da Aste Santuko jai egunetan. Horren adibide da, V. Hitza Argazki Lehiaketarako bidali digun argazki hau. Segoviatik 34 kilometrora dagoen Coca izeneko gaztelua da bertan ikus dezakeguna. Gazteluko aparkalekuan atera zuen argazkia, baina ez zuzenean gazteluari, autoan lotan ari zen honi atera zion, eta atzealdean ikus daitekeena da Coca gaztelua.



**PIRINIOAK ▶**

**Gorka Landazabal Etxeburu (Ibarra).** Ibartar honek mendia aukeratu du bere Aste Santuko jai egunak igarotzeko, hain zuzen ere Pirinioetan izan da. «Paisaia zoragarriez gozatzeko aukera izan dugu bertan eta guztietatik hauxe aukeratu dugu Hitza Argazki Lehiaketan parte hartzeko; erreka honen ikuspegi hau lortzeko harri handi irristakor baten gainean jarri beharra izan nuen, baina merezi izan zuen, emaitza oso ona izan baitzen», dio berak.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Ireber Iglesias (Ibarra).** Bihar 2 urte. Eloy, Zuriñe eta familiaren partetik zorianak.



**URTE ASKOAN**  
**Arkaitz Gabirondo Gorostidi (Gaztelu).** Gaur 3 urte. Muxuak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Ibai Bastarrrika Arozena (Ibarra).** Gaur 2 urte. Zorianak eta muxuak Inge eta familiaren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.**  
**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

**hitza**  
 agurren tarte